



Donostia, 2024ko urriaren 23a

**123/24 PRENTSA OHARRA**  
**15KM DONOSTIA LASTERKETA**  
**DBUS-EKO AUTOBUS LINEEN GELTOKIEN LEKUALDAKETAK**

**Urriaren 27an, igandean**, 15KM Donostia lasterketa egingo da hiriko kaleetan, **9:30etik 12:00etara** gutxi gorabehera, eta autobus ibilbide eta geltoki batzuk aldatuko dira.

Hori dela-eta, 9:30etik 11:30era **autobus zerbitzu hauek doan izango dira**: 16, 18, 19, 32, 36 eta 46 lineak.

- **5-BENTA BERRI ETA 25-BENTA BERRI-AÑORGA**

Santa Katalina Zubian egongo dira bukaerako geltokiak.

**25 linea**: Errotabururen eta Errekalderen arteko ibilbidea, bi noranzkoetan, ez da aldatuko.

- Antiguo alderantz, hau izango da ibilbidea: Santa Katalina Zubian hasita, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico García Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharraren bidea (geldialdia), eta Saihesbidea Errotabururaino.

Boulevard 17, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin geltokiak kenduko dira, **Santa Katalina Zubira eta Iparreko Geltokira** eramango baitira. Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak **Matia kalera, R. M. Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera** pasatuko dira.

- Erdialderantz, hau izango da ibilbidea: Errotaburutik, Saihesbidea hartuko da Pio XII.era, Gernikako Arbola Pasealekura, Foru Pasealekura eta Santa Katalina Zubira (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidekoak, Zumalakarregi Hiribidekoak, Ondarreta, Zubieta Plaza, Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo 5 eta Boulevard 17. **Santa Katalina Zubira eta Errotaburura** eramango dira.

Antiguotik Errotaburura eta Errotaburutik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

- **18-SEMINARIOA**

Lizarra-Marianistas izango da bukaerako geltokia.

- Erdialderantz: Mikeleteetatik Pio Barojatik gora egingo du (geldialdiak), gero Melodira eta Lazkano pasealekura, eta Aldapetatik Marianistetara jaitsiko da, eta Lizarra eta Aldapeta kaleen arteko bidegurutzean buelta emango du.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 31n, Okendon eta Gipuzkoa Plazan. **Lizarra-Marianistas** geltokira eramango dira.

- Seminario alderantz: Lizarra kaleko geltokitik Aldapetatik gora egingo du, Lazkano pasealekura, Melodiko biribilgunera, Pio Barojatik jaitsiko da (16 linearen geldialdiak eginda), eta biribilgunean Mikeleteetara jiratuko du, handik aurrera ohiko ibilbidea egiteko, Avancorantz.

Ez da geldituko Gipuzkoako Plazan, Urbietta kalea 6an eta Zubietta-San Martinen. **Lizarra-Marianistas** geltokira eramango dira.

- **16-IGELDO**

**09:15etik 12:00etara** gutxi gorabehera

- Igeldoko zerbitzuak: Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) anezka zerbitzua egongo da, Igeldo auzoa eta Antiguu lotzeko.

Pio Barojara edo Pio Barojatik beste edonora joan nahi duten erabiltzaileek 18-Seminarioa linearen zerbitzuak hartu beharko dituzte.

**Ez da zerbitzurik egongo Boulevardaren eta Ondarreta aldearen artean.  
Sanserreka aldeak ere ez du zerbitzurik izango.**

- **17-GROS-AMARA-MIRAMON**

- Gros alderantz: lehen ordutik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Zorroaga pasealekua, Toribio Alzaga, Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **Lasterketaren irteeran (9:30etik 11:00etara gutxi gorabehera), Amara Plazatik aterako dira zuzenean, ibairantz.** Antso Jakitunetik eta Luca de Tenatik jarraituko dute, Mirakruzerantz, Jai Alairantz eta Fernando Sasiainerantz, Kotxetegietan buelta emanez, Ategorrieta 41era bueltatzeko. Geltoki hauek kenduko dira: Madril 3 eta Madril 17 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen duten bitartean), Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroako Etorbidea 34. **Pio XII.eko parkera eta Ategorrieta 31ra** eramango dira.

- Amara alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik, Urumea Pasealekutik, Lehendakari Agirre Zubitik, Pio XII.eko autobus geltoki zaharretik (geldialdia) joango da, eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du Pio XII.etik.

Geltoki hauek kenduko dira: Bilbo Plaza, Mendeurrenaren Plaza, Antso Jakituna 12, eta Antso Jakituna 28 II. **Iparreko Geltokira eta autobus geltoki zaharrera** eramango dira.

- **8 GROS-INTXAURRONDO**

**9:30etik 11:30era** gutxi gorabehera

- Erdialderantz: Colón Pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Amaierako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du (31 linearen geltokian).

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard 15. **Mirakruzera** eramango dira.

- Intxaurrondo alderantz: Pinudi-Mirakruzetik joango da, gero Mirakruz kaletik jarraituko du (31 lineako geldialdiak eginez) Jaialaiko tuneletik bere betiko ibilbidearekin jarraituz. Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 15, Askatasunaren Hiribidea 19, Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroako Etorbidea 34. **Mirakruzera** eramango dira.

- **9-EGIA-INTXAURRRONDO**

**9:30etik 11:30era** gutxi gorabehera

- Erdialderantz: Iztuetako kaletik Frantzia Pasealekura, M<sup>a</sup> Cristina Zubira eta Foru Pasealekura joango da, eta amaierako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi Plaza eta Okendo 18. **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

- Intxaurrondo alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Okendo 18 eta Askatasunaren Hiribidea 7. **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

- **29-HEGO INTXAURRONDO SUR**

**9:30etik 11:30era** gutxi gorabehera

- Erdialderantz: Galtzada Nagusitik Colónera desbideratuko da Mirakruz kalerantz. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Boulevard 15. **Mirakruzera** eramango dira.

- Intxaurrondo alderantz: Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 15 eta Askatasunaren Hiribidea 15. **Mirakruzera** eramango dira.

- **13-ALTZA ETA 14-BIDEBIETA**

**9:30etik 11:30era** gutxi gorabehera

- Erdialderantz: Ategorrieta Hiribidetik desbideratuko dira, Jaialaitik, Galtzada Nagusitik, eta Colón pasealekuan sartuko dira. Mirakruzen egingo dute amaierako geldialdia.



Geltoki hauek kenduko dira: Jesuitak, Mariaren Bihotza, Kursaal, Boulevard 3 eta Gipuzkoa Plaza. **Mirakruzera** eramango dira.

- Altza eta Bidebieta alderantz: Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 3, Gipuzkoa Plaza, Askatasunaren Hiribidea 21 eta Askatasunaren Hiribidea 7. **Mirakruzera** eramango dira.

- **19-AIETE-BERA BERA**

- Erdialderantz: Aiete 1etik Marinistaseraino jaitsiko da, Lizarra eta Aldapeta kaleen arteko bidegurutzean buelta emateko.

Easo 19, Okendo eta Gipuzkoa Plaza geltokiak kendu dira. **Lizarra-Marianistas geltokira** eramango dira.

- Aieterantz: azken geltokia Marianistas izango da eta ondoren ohiko ibilbidearekin jarraituko du Aiete alderantz.

Gipuzkoa Plaza, Urbieta 6 eta Larramendi geltokiak kendu egin dira. **Lizarra-Marianistas geltokira** eramango dira.

- **23-ERRONDO-PUIO ETA 32-PUIO-ERRONDO**

Buelta guztiak **32 lineak bezala** egingo ditu, ibilbide honekin:

- Errondora alderantz: Marianistasetik Lizarra-Aldapeta kaleko bidegurutzean buelta emango dute, La Cumberraino igoko dira eta Lazkano pasealekutik Amarako bidea hartuko dute, Katalina Eleizegi eta Puiotik igo eta San Joan Jainkoaren iristeko. Urbieta 38, Mendurrena, Pio XII eta Errondo pasealekua geltokiak kendu egingo dira. **Lizarra-Marianistas geltokira** eramango dira.

- Erdialderantz: San Joan Jainkoaren itzuli ondoren, Errondo Gaietik itzuliko dira, Borroto kaletik, Etxadi kaletik, Aieteko pasealekutik La Cumberraino, Aldapeta Marianistaraino jaisteko. Errondo Barkaiztegi, Collado, Antso Jakituna, Easo Plaza, Easo 19 eta Urbieta 38 geltokiak kendu egingo dira, eta **Lizarra-Marianistas geltokira** eramango dira.

Katalina Eleizegi 1, Katalina Eleizegi 13 eta Katalina Eleizegi 25 geltokiak **Katalina Eleizegi 2, Katalina Eleizegi 34 eta Katalina Eleizegi 48** geltokietara lekualdatuko dira, hurrenez hurren.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA**

**9:20tik 12:00etara** gutxi gorabehera

Errondo pasealekutik, Morlansetik eta Mutualitateen aldetik ibili ezin izango dutenez, **linea horien zerbitzua kendu egingo da.**

Alde horietara joan nahi duten erabiltzaileek Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (26 eta 28 lineak).

- **26-AMARA-MARTUTENE**

- Martutene alderantz, Santa Katalinatik aurrera, hemendik joango da: Frantzia Pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 13, Urbieta 6, Mendeurrena eta Antso Jakituna 28 II. **Santa Katalina Zubira, Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrera** eramango dira.

- Erdialderantz: 9:30etik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **Lasterketaren irteeran (9:30etik 11:00etara gutxi gorabehera), Amara Plazatik aterako dira zuzenean, ibairantz.** Antso Jakituna 35etik, Luca de Tenatik, Bizkaia Pasealekutik eta Gernikako Arbola Pasealekutik jarraituko dut eta Santa Katalina Zubira iritsiko dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Madril 5 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen den bitartean), Easo Plaza, Easo 19, Okendo eta Boulevard 13. **Mundaiz Zubian, Gernikako Arbola Pasealekuan, Maria Cristina Zubian eta Santa Katalina Zubian** dauden geltokietan geratuko dira.

- **28-AMARA-OSPITALEAK**

- Ospitaleetarantz, Santa Katalina Zubitik aurrera, hemendik joango da: Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard 9, Urbieta 12, Urbieta 58, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 II. **Santa Katalina Zubira, Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrera** eramango dira.

- Erdialderantz: 8:00etatik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dia: Zorroaga Pasealekua, Toribio Alzaga, Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **Lasterketaren irteeran (9:30etik 11:00etara gutxi gorabehera), Amara Plazatik aterako dira zuzenean, ibairantz.**

Ohiko ibilbidetik joango dira eta Santa Katalina Zubiraino bakarrik iritsiko dira. Geltoki hauek kenduko dira: Madril 5 eta Madril 19 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen den bitartean), Okendo eta Boulevard 9. **Mundaiz Zubian, Gernikako Arbola Pasealekuan, Maria Cristina Zubian eta Santa Katalina Zubian** dauden geltokietan geratuko dira.

- **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO**

- Antiguo alderantz: Ategorrietatik aurrera, Galtzada Nagusitik, Colónetik, Iparreko Geltokitik, F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik jarraituko du, eta autobus geltoki zaharraren bideraino iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Pio XII plazatik Saihesbidea hartuko du eta, Amerika plazara iristean, Lugaritzetik gora egingo du, Meloditik, eta Pio Barojatik jaitsiko da. Gero, noranzko aldaketa egingo du Mikeleteen biribilgunean. Pio Baroja kalean eta Errotaburun geldialdiak egingo ditu. Ez da geldituko Jesuitak geltokian, Mariaren Bihotza, Bilbo Plazan, Mendeurrenean, Tolosa Hiribidean eta Zumalakarregi Hiribidean. **Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrera** eramango dira. **Pio Barojan eta Errotaburun** ere geldialdiak egingo ditu. Era berean, autobusa gutxi gorabehera ohi baino 15 minutu beranduago igaroko da Melodi eta Lugaritzeko geltokietatik.

- Loiola-Intxaurrondo-Altza alderantz: Pio Baroja 4tik aurrera Pio Barojatik igoko da berriro, Melodi, Lugaritz, Errotaburu eta Amerika Plazatik Saihesbidean sartuko da, Amara alderantz. Madril Hiribidea 10eko geltokitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Ez da geldituko Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean eta Colladon. **Errotaburura eta Madril Hiribidera 10era** eramango dira.

- **27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO-GROS**

- Antiguo alderantz: Pio XII.eko Plazan duen geltokitik Antiguora abiatuko da Saihesbidetik, Lugaritzetik gora egingo du eta Pio Barojatik jaistean, Matia kalera, R. M. de Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera sartuko da, eta Zarautz Hiribidean ibilbide bukaerako geldialdia egingo du (Hesperia Hotela). Lasterketaren irteeran, eta Madril Hiribidean helmuga desmuntatu bitartean, hemendik ibiliko dira: Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. Madril 3ko geltokia kenduko da, **Pio XII.eko parkera** eramango baita.

- Larratxo alderantz: Zarautz Hiribidetik (Hesperia Hotela), Lugaritzetik gora egingo du Melodiraino, eta Lugaritzetik jaitsiko da berriro. Gero, Errotaburuko biribilgunetik Saihesbidera sartuko da eta Pio XII.ean irtengo da. Handik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. Zumalakarregi Hiribideko, Tolosa Hiribideko eta Colladoko geltokiak kenduko dira. **Zarautz Hiribidera (Hesperia Hotela) eta Mundaiz Zubira** eramango dira.

- **31-INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK**

9:40etik 12:10era gutxi gorabehera

Easo kalea gurutzatu ezingo denez eta, beraz, Aietera igo eta jaitsi ezin izango denez, **linea horren zerbitzua kenduko da.**

- **33-LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO-BERIO**

- Antiguo alderantz: hemendik ibiliko da: Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorca, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia), Saihesbidea, eta Errotaburu. Errotaburutik Xabier Lizarditik joango da (geldialdia behin-behineko poste batean), Bernardo Estornes Lasa, Ibaetako biribilgunea eta Igarako amaierako geltokirantz jarraituko du. Beriotik bueltan baino ez da igaroko.

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 18, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin, **Iparreko Geltokira** eramango baitira. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira eta **Matia kalean, R. M. Azkuen eta Zarautz Hiribidean (anezka zerbitzua) edo Errotaburun** geratuko da. **Beriorako ibilbideko joaneko geltokiak kendu egingo dira.** Antiguotik Errotaburura eta Errotaburutik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

- Larratxo alderantz: Igaratik ohiko ibilbidea egingo du Beriotik Gelategiraino; Unibertsitateetako zerbitzu bidea, Ibaetako biribilgunea, Amerika Plaza eta Errotaburun sartuko da (geldialdia 5 linearen geltokian) eta Saihesbidera joango da. Gero Pio XII.era, Bizkaia Pasealekura eta Foruen Pasealekura irtengo da, eta Santa Katalina Zubiraino iritsiko da.

Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira eta **Elhuyar Plazara** (Gelategia) eramango dira. Zubieta Plazako, Askatasunaren Hiribidea 21eko eta Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokiak **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- **35-ANTIGUO-AIETE-OSPITALEAK**

- Ospitaleetatik Antiguorantz: Pio Barojatik jaisterakoan Matia kalean sartuko da (kale honetan gelditu egingo da); gero, R.M. Azkue (geldialdia), Zarautz Hiribidera, Amerika Plaza, Errotaburutik sartuko da, Xabier Lizardi (geldialdia behin-behineko poste batean), Bernardo Estornes Lasa, Ibaetako biribilgunea eta Diario Vascorantz jarraituko du. Beriotik igoko da eta Unibertsitatearen biribilgune txikira jaitsiko da. Elhuyar Plazatik Arriola alderantz jarraituko du.

Geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregikoak eta Tolosa Hiribidekoak. **Matia kalera R.M. Azkuera** eramango dira. eta Julianategiko geltokia ere kenduko da.

- Ospitaleetarantz: Gelategitik aurrera, Unibertsitateetako zerbitzu bidetik joango da, Igarako biribilgunea, Amerika Plaza, Lugaritz, Pio Baroja, Mikeleteetan buelta emango du eta Pio Barojan Ospitaleetarako bideari ekingo dio.

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea eta Zumalakarregi Hiribidea, **Elhuyar Plazara** eramango baitira. **Elhuyar Plazara** eramango dira.



- **36-SAN ROKE-ALDAKONEA**

**Linea bitan bereiziko da.**

**1. ALDAKONEA-ERDIALDEA**

Ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du (behin-behineko zutoina). Aldapabidetik aurrera, Aldakonea, Alai-Ondo, Konkorrenea, Onkologiko zaharra, Nazaret, Zuhazti, Iztueta, Frantzia pasealekua, M<sup>a</sup> Cristina Zubia eta Foruen pasealekua igaroko ditu, eta ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du. Gero, Aldakonearaino ohiko ibilbidea egingo du.

Ez da geldituko Easo Plazan, Gernikako Arbolan eta Askatasunaren Hiribidea 3an. Geltokiak **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

**2. MATIA-SAN ROKE- ARROKA PLAZA**

Ibilbide bukaerako geldialdia Arroka Plazan egingo du.

- San Roke aldea: Arroka Plazatik Matia kalera bitan banatuko da. San Rokeetik jaistean, Easo plazako geralekuraino iritsiko da, Easo kalea, Lizarra eta Arroka Plazara iritsiko da. Arroka plazatik Matiaraino ibilbide normala egingo du.

Ez da geldituko Euskadi Plazan, Askatasunaren Hiribidea 20an, Urbieta 12an eta Urbieta 38an. **Arroka Plazara** eramango dira.

- **37-RODIL-ZORROAGA**

- Zorroagarantz: Manteotik Nafarroako Hiribidera joango da, Ategorrieta Etorbidea, Galtzada Nagusia, Colón Pasealekua, Frantzia pasealekua eta Iparraldeko Geltokirantz jarraituko du ohiko ibilbideari berriro ekiteko. Lasterketaren irteeran, Balleneroetik Anoetara joango da zuzenean Isabel II.era joan gabe.

Mariaren Bihotza, Kursaal, Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 7 geltokiak kendu egingo dira. **Colón pasealekura eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Rodil alderantz: lehen ordutik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Zorroaga pasealekua, Toribio Alzaga, Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **Lasterketaren irteeran (9:30etik 11:00etara gutxi gorabehera), Amara Plazatik aterako dira zuzenean, ibairantz.** Ez da Etxaide kalean sartuko, Santa Katalina Zubiraino jarraituko du (geldialdia) eta bere ibilbidea berreskuratuko du Rodil Alderantz. Geltoki hauek kenduko dira: Madril 17 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen duten bitartean), Antso Jakituna 33 eta Askatasunaren Hiribidea 3. **Pio XII.eko parkera eta Santa Katalina Zubira** eramango dira.



- **41-GROS-EGIA-MARTUTENE**

- Gros alderantz: Euskadi Plazatik Mirakruz kalerantz jarraituko du (29 linearen geldialdiak) Jaialaira iristeko (bukaerako geldialdia).

Iparragirre, Zurriola eta Groseko Anbulatorioa geltokiak kenduko dira. **Mirakruzera eta Jaialaira** eramango dira.

- Martutene alderantz: Jaialatik aurrera ohiko ibilbidea berreskuratuko du.

Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34 geltokiak kenduko dira. **Mirakruzera eta Jaialaira** eramango dira.

- **42-ALDAPA-EGIA**

**9:30etik 11:30era** gutxi gorabehera

- Erdialderantz: Colón pasealekutik aurrera Frantzia Pasealekua, M<sup>a</sup> Cristina Zubia eta Foru Pasealekua igaroko ditu, azken geldialdia Santa Katalina Zubian egiteko.

Okendo 18 geltokia kenduko da. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- Aldapa alderantz: Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Okendo 18 eta Askatasunaren Hiribidea 7. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- **45-RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

- Antiguo-Aiete alderantz ibilbide hau egingo da: Geltokietan hasi, eta F.G. Lorca, Lehendakari Agirre zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia), Saihesbidea Errotaburuko geltokiraino (5 linea). Errotaburutik ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Bera Bera-Pagolarantz.

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 18, Urbieta 20 eta Zubieta-San Martin.

**Iparreko Geltokira eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharrera** eramango dira. Zumalakarregikoak eta Tolosa Hiribidekoak ere kenduko dira.

- Erdialderantz: ohiko ibilbidea egingo da Amerika Plazaraino, eta Errotaburun sartuko da (geldialdia) eta Saihesbidetik jarraituko du Pio XII.eraino. Pio XII.etik, Gernikako Arbola pasealekutik eta Foru Pasealekutik igaroko da (17 linearen geldialdiak eginez), eta Santa Katalina Zubitik eta Geltokietatik igaroko da.

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidekoak, Zumalakarregi Hiribidekoak, Ondarreta, Zubieta Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 31. **Errotaburura, Mundaiz Zubira, Gernikako Arbolara, M<sup>a</sup> Cristina Zubira eta Santa Katalina Zubira** eramango dira.

Erroburutik Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartuko dute (doako zerbitzua).

- **46-SAN ANTONIO-MORLANS**

**9:40etik 12:10era** gutxi gorabehera

Errondo pasealekutik eta Morlansetik ibili ezingo duenez, **linea honek ez du zerbitzurik emango Askatasunaren Hiribidearen eta Morlansen artean gutxi gorabehera 12:10era bitartean**. Alde horietara joan nahi dutenek Amarara doazen ohiko lineetako (26 eta 28 lineak) zerbitzuak hartu ahal izango dituzte.

- **Morlans alderantz**: Ategorrieta Hiribidetik aurrera, Galtzada Nagusia, Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, M<sup>a</sup> Cristina Zubia (geldialdia) eta Foruen pasealekua igaroko ditu, eta **Santa Katalina Zubian** ibilbide bukaerako geldialdia egingo du.

Ez da geldituko Askatasunaren Hiribidea 20an, Urbietta 12an eta 38an, Mendeurrenean, Pio XII.ean eta Morlans inguruko geltoki guztietan. **M<sup>a</sup> Cristina Zubira eta Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- **San Antonio alderantz**: ibilbide bukaerako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du (behin-behineko zutoina). Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du berriro, San Antonioraino.

Ez da geldituko Morlanseko geltokietan, Antso Jakituna 35ean, Bizkaia Pasealekua-Mundaiz Zubian, Gernikako Arbolan eta Askatasunaren Hiribidea 3an. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- **ERROTABURU-ANTIGUO LOTZEKO ANEZKA ZERBITZUA:**

- **Antiguo alderantz**: Errotaburutik irtengo da, Lugaritzetik igo, Meloditik, eta Pio Barojatik jaitsiko da, Mikeleteetaraino. Lugaritz, Melodi eta Pio Barojako geltoki guztietan geldituko da.

- **Errotaburu alderantz**: Mikeleteetatik aurrera, Matia kalean jiratu, Benta Berri Plazara, R.M. Azkuera, Zarautz Hiribidera eta Amerika Plazara; gero, Errotaburun sartuko da. Matia kalean, R.M. Azkuen, Zarautz Hiribidean eta Errotaburun geldialdiak egingo ditu

- **TB6 TAXIBÚS ULIA**

**9:30etik 12:00etara** gutxi gorabehera Groseko Anbulatorioa eta Mariaren Bihotza zerbitzurik gabe geratuko dira.

- **TB7-ATOTXAERREKA-ITSASARGIAREN PASEALEKUA:**

Itsasargiaren pasealekuko zerbitzua bertan behera geratu da **10:00etatik 12:00etara**.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

- Antigua alderantz: Amerika plazako geltokia, Tolosa 111ekoa, Unibertsitatekoa, Majisteritzakoa eta Zumalakarregi 21ekoa kendu egingo dira. Errotaburu 5era lekualdatuko dira.

- Atotxa Erreka alderantz: Antiguako anbulatoriokoa, Majisteritzakoa, Unibertsitatekoa, Tolosa 112koa eta Tolosa 138koa kendu egingo dira. Benta Berri plazara, R.M. Azkuera, R.M. Azkue 32ra, Zarautz 90era eta Zarautz 122ra lekualdatuko dira.

**Lasterketak aurrera egin ahala lineak ohiko ibilbideak egiten hasiko dira poliki-poliki.**

Informazio gehiagorako, deitu 900 840 146 telefonora, edo [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean.

